

Mundua haserre

Andrea Abad Ormazabal

Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailak 1. saria

Lesakako Irain IP

Mundua haserre dago,
Zaborrez beterik,
Fabrikaz beterik.

Dar-dar egin du lurrak:
Izutu da itsasoa,
Gure Lurra bitan bereiztu
Gizakiak ikaratu
Etxe, dorreak xehetu.

Haserre dago itsasoa
Zaborrez beterik
Itsasuntziz beterik,
ura haserrez beterik.

Malkotan dago herria!
Itsasoaren olatu handiak
Herrirantz talka egina
Ibilgailuak eramanda
Etxeak desagertu,
Jendea negarrez
jendea itota.
Herriak hilik.

Ezer ez dago kaleetan
Ura bakarrik dabil
Herriko txoko guztietan.

Landararik gabe
Piztirik gabe,
Gizakirik gabe,
Etxerik gabe,
Ura bakarrik
Ura, ura, ura.